



Urribetxea (-a) etxebizitza

Aldaerak:

Ahozkoa: Urribetxa / Urribitxa

“... la casería rústica titulada Uribe echea... radicante en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz... comprende noventa estados... equivalentes a trescientos cuarenta y dos metros trescientos sesenta milímetros de cabida, y la que se compone de sus correspondientes cuadras, divisiones y habitaciones...”
DJE 2/235 or. (1870)



43° 10' 4"

2° 33' 26"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Uribe auzunean kokatzen den baserri honen gaineko aipamenak goiztiarrak dira, eta, hala, Bizkaiko su-erroldetan *Uribe Echea* (1704) eta *Uribe Echea* (1745) agertzen zaizkigu. Idatzizko forman ia aldaketarik ez du jasan, eta modu berean dokumentatua izan da azken mendeetan: *Uribeche* (1825, PE/1825), *Uribe-echéa* (1859, BUA, Nmcr), *Uribe Echea* (1905) BUA, 40. or.) edota *Uribechea* 1967ko Udal-errolan. Ahozko transmisioan *Urribetxa* edo *Urribitxa* dira berriztarrek erabilitako erak.

XVIII. mendeko eraikuntza apala da, gaur egungo berriztatzearen ondoren, zeharo dotoretu badute ere. Harlangaitzak eta baoetako egurrezko dintelek hala adierazten dute. Fatxadaren antolamendua argia da. Baoak hiru ardatzen arabera egituratuta daude, nahiz eta beheko solairuan antolaketa hori ez bete, atea aldamen batean dagoelako, simetria ardatzetik eskumatara. Bi isurkiko teilatua eta bi pisu ditu, baita ganbara ere, frontaleko leiho bakarrak erakusten duen legez.

toponimia

Bizkaian ohikoa da etxe izenak oso luzeak izatea, luzeenak Euskal Herrian lehenengo osagaia auzo izena izaten delako. Sarritan auzo izenaren oinarria etxe baten izena da. Etxe bakarra egon zen eta bigarren bat eraikitzean zerbait bereizgarri gehitzen zioten berriari eta gehienetan zaharrari. Denboraren poderioz auzoa sortzen zen eta etxe guztiek zuten hasiera bera zuen izena. Ahoz, gehienetan bigarren zatia besterik ez da erabiltzen. Kasu honetan Uribe izeneko etxea da, izenak argi erakusten duen bezala.